


BAKOITZARI BEREA



Liburu hau
Euskal Jaurlaritzako
Hezkuntza Sailak onartu dau
1983ko apirilaren 13an

BAKOITZARI BEREA

RAMON ETXEBARRIA AYESTA

Eragileak: Fermin eta Juan Mari Iraolagoitia

Egilea: Ramon Etxebarria Ayesta

Marrazkilaria: Jesus Antonio Ruiz

Margoa: Ernio, S. L.

Depósito Legal: BI-849-83

Inprimaketa: Igarri, S. C. L., Deusto-Bilbao

Argitaratzailea: IKA, Euba. Tnoak: 673 04 86 - 673 18 50

Argitaletxea: Ibaizabal

ONDO IKASITAKOAREN AGERBIDEA

Ramon Etxebarriaren ONDO IKASITAKOAREN AGERBIDEA
Eubako Lauaxeta ikastolako 1982ko Ipuin Lehiaketan saritua izan
zan.

Igande goiza zan. Negu aurrettoa. Urrustiko mutil gaztea mezarara joian. Ilunetan urten etxetik eta ilunetan sartu eleiza portalera.


Mezea zazpiretan zan eta hogeiren bat minutu lehenago heldu zan. Jezarri zan eta jezarri baino ez, parroko jauna heldu zan mezea esan behar eban eta.

Abadeak, gaztea ikusi ebanean ez eban ezagutu. Zelan ezagutuko eban ba inoiz ez zan agertu parroki haretatik eta!

Dana dala, abadea ere dana jakin gurakoa zan eta... honela hasi ziran:

Igandea: Domekea.

Dana jakin gurakoa: Guztia jakin nahi ebana.



Abadeak.—Kaixo! Egunon!

Gazteak.—Jaungoikoak emon!

A. Parroki honetakoa zara ala?

G. Bai jauna!

A. Ez naz gogoratzen inoiz ikusi zaitudanik!

G. Ez ba, kanpotik ibili naz eta.

A. Ikasten beharbada zu?

G. Bai ba. Zeri edo hari ekin deutsalagu.


A. Kontxo! ez dago txarto. Zeri ekin deutsalazu ba?

G. Ba, beti ikasten da zeozer.

A. Bai, jakina, baina, zer ikasi dozu ba?

Zeri edo hari: Zerbaiti.

Zeozer: Zerbait.



Gazteak burua jatsi eban apur bat eta...

G. Ba... ba... ez dakit ba. Abade bateri esateko...

A. Tira mutil! Ondo ikasitakoa edonori esan behar jako bildur barik.

G. Bai, ondo ikasi dot baina... Lapur ikasi dot.

A. Ez dago txarto ondo ikasi badozu. Baina ez dakit ofizio hori ondo ikasten dan.

G. Uste dot ondo ikasi dodala.

A. Bai? Gaur gabaz, han goiko baserrian bizi diran senar-emazteei ohostuko zeunskie lo egiten daben oheko azpiko izarea?


G. Bai, errez.

A. Eta neu joaten banaz esaten lapur bat joango jakela gabaz?

G. Bardin deust. Berorrek nahi dauan moduan.

Eta, gero arte, esanaz banandu ziren bata mezea esatera eta bestea entzutera.

Berorrek: Petsonaje handiei egiten jaken tratamentua.



Arratsaldean joan zan abadea baserrira eta esan eutsen baserriko senar-emazteei gabaz lapur bat joango jakela lo egiten daben oheko izarea ohostutzen.

Heldu zan gaba. Baserri haretako gizonak ondo itxi ebazan ateak, eskopetea hartu eban eta emaztea eta bera etxe atzean egoan logelara joan ziran.

Aldi haretan ez egoan argi elektrikurik han inguruan.

Orduak aurrerantz joiazan eta gure baserritarrak loak hartu ere bai.

Lapurra heldu zan etxe ingurura. Ilargia egoan, Lapurra bere zereginetan hasi zan, txuzo bat eginaz.

Txuzo: Txori-malo (txoriak uzatzekoa).



Txuzoa egin ebanean taket bateri lotu eta baserritarrak lo egiten eben leihopera joan zan.

Heldu zan eta txuzoa eskuetan eukala, gora ta behera eragoion zarata apur bat eginaz.

Zaratok iratxartu ebazan lo egozanok. Gizona jeiki zan eta... Ixi! xixi! ixilik! esan eutsan andreari. Heldu da lapurra! Kontuz!

Lapurrak gora ta behera erabilan txuzoa.

Taket: Palu bat, estaka bat.

Gora ta behera eragoion: Gora ta behera erabili.




Baserritarrak orduan hartu eban eskopetea eta leiho parean ikusi ebanean txuzoa, lapurra zala pentsaturik... Pun! Pun! disparatu eban eta... Praunnnn! jausi zan.

Zarata hau entzun ebanean, baserritarra arduratu egin zan, eta batpatean zelango edo halango argiren bat topatzen hasi zan.

Emazteak ere esaten eutson: Zoaz arin gizon etxe osteria ia nor dan ikusten! Ia zer egin deutzazun! Ia ezaguna dan!

Nor izan ete da? Nor izan ete da? esaten eban andreak bere artean.

Batpatean: ...eta segiduan.



Arineketan jatsi zan gizona nor zan jakiteko lapur hori.


Baserriko atea kanporantza zabaltzen zan eta baserritarrak atea zabaldu ebanean lapurra ate ostean ostendu zan.

Baserritarra etxe osterera joan zanean lapurrak gora igon eban eta logelan sartu, esanaz...

Ai! Ai! Ai! nik egin dot egitekoa andratxue! auzoko gizona hil dot! auzoko gizona hil dot!

Andrea hau entzunik ikaratu egin zan eta leihora jeiki zan non ete egoan hildakoa edo nor ete zan jakiteko.

Ostendu: Izkutatu.
Hildakoa: Hil zana.



JESSE-83

Leihotik begira egoan artean, arduraz, lapurrak izarea hartu eban eta jatsi zan logelatik ixil ixilik abadearengana joateko.

Handik lasterrera etorri zan senarra etxera eta logelan sartu zanean emazteak esan eutson:

Ai, gizon, gizon! Zuk egin dozu egitekoa!

Eta gizonak erantzun: Zer egin dot ba?

Emazteak: Zer egin dozun? Oraintxe ez daustazu esan ba, auzoko gizona hil dozula? eta orain dinostazu, zer egin dot ba?

Gizonak.—Ez da ezer jazo. Txuzo bat baino ez da izan.

Emazteak.—Oraintxe egon zara neugaz eta baietz esan daustazu ba ta!


Gizonak.—Nik ez!



Une haretan konturatzen dira eta emazteak esan eban:

Lapurra izan ete da ba nigaz berbetan egon dana?

Begiratu eben ohera eta han ez egoan izararik. Konturatu ziran lapurra izan zala eta abadearengana joan ziren arineketan. Abadearen etxera heldu ziraneko han egozan bai abadea eta bai lapurra alkarki begira eta barre baten izarea mahai gainean eukela.




BAKOITZARI BERA

Ramon Etxebarriaren BAKOITZARI BERA Eubako Lauaxeta
ikastolako 1982ko Ipuin Lehiaketan saritua izan zan.

Ha ere ba zan! Mendi bat eta alde bi, herri bi. Alde bakoitzean herri bat egoan. Guzurralde eta Egialde. Guzurralden, Zelanostu herria eta Egialden Zelanzaindu herria hain zuzen ere.

Zelanostu herria lapurrez beterik egoan. Ikastetxe bat ere ba eukan irakasle entzutetsuz beterik. Herri guztia Lapur-ikastetxe inguruan ebilen. Ikastetxe honetako ikasketak bost urtetakoak ziran. Erabiltzen ziran gaiak-honelakoak: «Zerostu», «Nonostu», «Noriostu», «Zelanostu»; eta azkenez, «Zenbatostu». Gai honeen irakasleak: «Erdilapur», «Lapur», Lapurterdi», «Lapurrandi» eta «Lapurtzar».

Alde bakoitzean: Alde batean eta bestean.
Entzutetsu: Izen handikoa.




Zelanzaindu herrian bizi zan jendea oster, oso langilea zan.
Jende ona, jatorra, euren izerdiaz bizitza ataratzen ebana.

Beti egoan burrukaren bat alkarren artean. Alde batekoak
beti ohostuten eta bestekoak jagoten. Bizimodu ederra!

Zelanostu lapur-ikastetxetik urtetzen eben lapur barriek,
ikastetxe honetako irakasle gura izan ezker, lapurketa batzuk
egin behar ebezan. Eta Zelanzaindu herrira joaten ziran proba
honeek egitera.

Hau zala ta, arduraz beterik bizi ziran zelazaindu herrikoak.

Hau zala ta: Honegaitik.



Heldu zan egun baten mutil gazte bat Zelanostu herrira lapur-ikasketok egitera. Heldu zanean eta Lapur-ikastetxera joan, han «Lapurjaun» katedratikoagaz egon zan eta hasi ebazan bere ikasketok.

Igaro zan urte bat, bi, hiru,... eta bajoian gure Lapur-gazte ikasgaiok menperatzen. Zerostu gaian, Bikain. Nonostu gaian, oso ondo. Eta honela gai guztietan, batez ere Zelanostu gaian egunero bikain ataratzen eban. Irakasle guztiak ikaratuta eukazan.

Ikasketak amaitu ebazanean, Irakasle izateko, epaile batzuk jarritako proba gogor bat gainditu behar eban.

Bost urtetan eukitako irakasleak izango ziran epaileak eta Lapur-jaun eta Lapurtzar ere bai.

Ikasgaiak menperatu: Ondo ikasi.

Ikaratu: Bildurtu.

Epaile: Jueza.

Gainditu: Superatu.




Eguna izendatuta egoan. Bariku bat zan. Bariku goiza. Lapur-ikastetxe aurrean batu zan Zelanostu herriko jende guztia, ikasle, irakasle, osagile, maisu, langile eta emakume. Abaderik ez egoan. Zelan egongo zan ba halako herri baten!

Gizon on bat bakarrik egoan herri guztian eta bertakoak batakien nor zan, baina ondo konpontzen ziran beragaz.

Heldu zan ordua proba hori egiteko. Alde batean epai-leak eta bestean herritarrak egozan. Herritarren aurrean, aurrenengo, Lapur-gazte.

Epai-mahaian egoan Lapurzarrek golpe batzuk emon ebazan mahai gainean eta jende guztia ixildu egin zan.

Izendatuta: Ipinita.
Osagilea: Medikua.
Bertakoak: Hangoxeak.
Aurrenengo: Lehenengo.



JESSE-83

Seriotasun handiaz Lapurjaunek hartu ebazan orri batzuk bere eskuetan eta irakurtzen hasi zan: Epai-mahaikideok, irakasle, eta lapur guztiok. Egunon!

Gaur gure Lapurgaztek egin beharko dauan lapurketa epaitzeko alkartu gara hemen. Bere zeregina hauxe izango da. Entzun eizue, ta batez ere zuk, Lapurgaztek, egin behar dozun horrek: Hor aurrean ikusten dozun mendi horretatik egunero jatsitzen da Egialdeko artzain bat bere artaldeagaz. Hiru ardi ohostu beharko deutzazuz.


Eta jarraitu eban esanaz: Proba hau, zure trebetasuna neurtzeko bakarrik izango da eta ez Egialdeko artzainari kalterik egiteko. Horregaitik herri honetan dagoan gizon on bakarra artzain horrengana bialduko dot jakitun egon daiten lapur bat joango jakola ardiak ohostera.

Mahaikideak: Mahaian batera dagozenak.

Lapurketa: Lapurretea.

Epaitzeko: Juzgatzeko.

Trebetasuna: Abilidatea.



Artzaina etorri zanean, zapata eta ardi barik geratu zan. Laster konturatu zan zer jazo jakon. Larri egoan artzaina, Gezurraldeko gizon onak esan eutsona, egia zala ikusirik. Ohostu ere ardirik onena egin eutson.

Joan zan gure artzaina barriro mendirantz, beste ardiak han eukazan eta, ardi-txabolan.

Bigarren ardia ere hartu eban. Oraingoan belarriak zurrago ekarzan eta zaratarik txikiena entzuten ebanean, gelditu eta ixildu egiten zan.

Lapurgazte barriro ere itxaroten egoan. Lehentxoago ostandu zan inguruan ostandu zan. Ohostu eban ardiaren arrana eskegi eban sasigaine baten soka luze batez eta itxaroten egoan.

Jazo: Gertatu.

Ikusirik: Ikusita.

Zurrago: Adiago, atentuago.



Artzaina inguratu zanean Lapurgaztek sokatik tiratu eban eta... dalan, dalan, dalan-dalan,...

Artzainak entzun ebanean harrituta geratu zan, pausorik emon ezinik, ixil-ixilik, ia ia, arnasarik hartu ezinik.


Barrero ere, dalan-dalan, dalan-dalan,... entzun eban. Biho-tza zabaldu egin jakon, irribarreak ere urten eutson. Lehen galdu dodan ardiaren arrana da! bai, bera da! Esan eban berekautan. Lotu eban ardia ondoko arantza baten eta han doa galdutako ardiaren bila.

Ibili ta ibili eta arrana bakarrik aurkitu eban.

Inguratu: Hurreratu.

Harrituta: Ikaratuta.

Berekautan: Bere barruan.




Esan bakarrik ez, egin ere bai. Zelanostu herriko gizon on hori bialdu eban Lapurjaunek artzainarengana eta honek esan artzainari: Kontuz ibili zaitez menditik behera zoazenean, Guzurraldeko Lapur-ikastetxeko ikasle bat etorriko jatzula ardiak ohostuzera esan deuste eta.

Artzainak barri hau asko eskertu eutson. Hau jakiterakoan artzaina bildurtu egin zan eta larritu ere bai, baekian zelangoak ziran herri haretako lapurrak eta.

Erabaki bat hartu eban, ardiak banan banan jatsitzea, horrela ez eutsozala ohostuko ta.

Eskertu: Eskerrak emon.
Jakiterakoan: Jakin ebanean.
Jatsitzea: Bajatzea.



Baetorren ba artzaina mendia behera, ardia soka batez lotuta ekarrela eta arran bat samatik dingilizka. Dala, dalan... tapa, tapa,...

Lapurgazte, artzainak igaro behar eban bide ertzean egoan ostanduta sasi oste baten. Apurtxo bat lehenago zapata barri bat bota eban artzaina igaroko zan bidean.

Artzaina heldu zanean eta zapata barria ikusi, asko poztu zan. Inor ez ebanean ikusi eta pentsaturik zapata hori galdu ebanak bestea ere han inguruan galduko ebala, ardia arbola baten lotu eta beste zapatearen bila joan zan.


Bitartean Lapurgaztek ardia ohostuten deutso, arran barruan bedar apur bat sartu eutson zaratarik ez egiteko eta ba doa epai-mahaikoengana.

Txalo beroz hartu eben Lapurgazte hain ondo ta errez egin ebalako.

Dingilizka: Eskegita.

Igaro: Pasatu.

Ostanduta: Eskutatuta.



DALAN
DALAN

Ha zan ha! Odolak ur bihurtu ez jakozanean! Ezin eban ulertu ha. Erdi zorabioturik, itaunak egin eta erantzunik lortu ezinik bariro joan zan ardi-txabolara.

Lapurgazte osterera txalo beroz hartzen eben Lapurralden. Epai-mahaiko irakasleak ere pozik ikusten ziran. Azken baten, eurak ataratako lapur bat zan. Batez ere Zelanostu gaiaren irakasleak, Lapurrandik, zelango barreak giten ebazan! Lepoak eta urdaileak gora ta behera egiten eutsien barre egiten eban bakoitzean.

Odolak ur bihurtu: Gaisotu.
Zorabioturik: Mareaturik.
Urdailea: Estomagua.



Artzainak ez eukan beste igesbiderik ardiak txabolatik ataratzea baino eta bide bakarra eukan. Hartu eban hirugarren ardia, baina oraingoan neurri guztiak hartu ebazan. Hartu eban ardia eta astiro-astiro inguru guztietara begiratzuz baetorren beherantza. Oraingoan ardia arran barik inok entzun ez egian arran-otsik.

Lapurrak ez eban entzun arranotsik baina atzainak bai. Lehentxuago galdu ebazan ardi bienak gainera. Beherago ta argiago entzuten ebazan. Amesetan ete nago?, esaten eban eta gelditu egiten zan. Begiratu eban bere ondora eta ...bai! ardia ondoan eukan. Geldi egon zan apur baten amesetan ala itxarrik ete egoan jakiteko. Pentsatzen egoan denpora guztian arranotsa entzuten eban. Dala-dalan, dalan-dalan,...

Arranotsik: Arran zaratarik.



Eta gainera, neuk galdutako ardien arranotsa da ta! Esaten eban bere artean. —Beharbada, lapurrak ez eustazan ohostuko, galdu egingo jatazan eta biak alkartuko ziran eta topeka ibiliko dira—. Hau ere pentsatu eban.

Eta barriro ere arranotsak, —dan-dalan, dan-dalan, dlan-dlan,... Ondo pentsatu eta gero... Bai! esan eban. Neuk galdutako ardi bien arranotsa da eta sasiarteren baten dagoz katigu.

Pozaren pozez, ondoan egoan arantza baten lotu eban hiru-garren ardia eta beste bien bila joan zan.

Geroago ta hurrago entzuten ebazan arranotsak. Geroago ta taupada handiagoak emoten eutsozan bihotzak. Izerdiak ere urtetzen eutson.

Arin egin gura izan eban bere ardi maiteengana eta heldu zanean arran biak bakarrik aurkitu ebazan soka banatatik lotuta.

Topeka: Alkar joka buruaz.

Katigu: Lotuta.

Taupada: Taup, taup egin.




Begiak lausotu egin jakozan. Ilundu ere bai. Negar egin gura ta ezin. Zarata egin nahi ta ezin. Arin egin gura ta ezin. Ez eban ezer ikusten, ardia ere ez.

Zelan ikusiko eban ba, arran-jotzailea lapurra zan eta!

Zereginik ez eukala ikusi eban eta erabagi bat hartu eban. Guzurraldera joatea bertakoekaz egoteko.

Zutundu zan eta triste, buruzbehera, mantso, ahal eban moduan, apurka apurka heldu zan Guzurraldera. Zarata handiak entzuten ziran.

Lausotu: Ilundu, lainotu.



JESSE-83

Herrira heldu zanean jendea lepoz eukan. Jendearen aurrean hobeto ikusten zirala, zazpi gizon mahai baten inguruan.


Halako baten, mahai honetan egoan batek, mailu bateaz golpe batzuk emon ebazan mahaian. Pun, pun, pun,...

Jende guztia ixildu egin zan eta mahai erdian egoan gizon bizartsu zahar batek esan eban: Epai-mahaikideok, irakasle eta ikasle guztiok; egunon! eta zuoi lapurroi ere bai! Badakizue zertarako alkartu garan hemen, lehen esan dodan legez. Badakizue... jarraitu eban esaten.

Adi egoan eta ia arnasarik hartu barik gure artzaina. Zer ete da hau? esaten eban bere artean.

... Gaur gure Lapurgazteren trebetasuna epaitzeko alkartu gara hemen eta lehen esan dodan legez, ardi honeek barrero bihurtuko jakoz jaubeari, Egialdeko artzainari.

Lepoz euki: Lepoa emoten.
Adi egon: Entzuten egon, begira.
Jaubea: Ugazaba.



UMEENTZAKO IPUIN-TXORTA

- 1.—MARI ANBOTON ETA GORBEAN, Juan Manuel Etxebarria
- 2.—BAKOITZARI BEREAN, Ramón Etxebarria
- 3.—TXOLINTXU ETA NEKANETXU, Bibiñe Pujana - L. C. Abeal
- 4.—KARRAMARROEN IBILALDIA, Felix Zubiaga
- 5.—FRAKOTE IKERLARI, Ana Arruza
- 6.—MARI ANBOTOKOREN IBILALDIAK, Josu Penades Bilbao
- 7.—KUKUAMETS, Juantxu Rekalde
- 8.—BASAJAUNAK, Juan Manuel Etxebarria
- 9.—AMAMAREN ABERETXOAK, Bibiñe Pujana
- 10.—LAMIÑAK, Juan Manuel Etxebarria
- 11.—KUKU PASOTA, Felix Zubiaga
- 12.—TXITXIBURRUNTZI ETA ARATOSTE, Bibiñe Pujana
- 13.—HALABEHARREZ MEDIKU, Felix Zubiaga
- 14.—IBANENTZAKO ARGI APUR BAT, Eburne Urkiola
- 15.—MAINTON ETA PRAISKU, Bibiñe Pujana
- 16.—ABEREA, Igone Magunagoitia
- 17.—ONDO IKASITAKOAREN AGERBIDEA, Ramon Etxebarria
- 18.—KISMI ETA OLENTZERO, Juan Manuel Etxebarria
- 19.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 20.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 21.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 22.—PERU TA MARIXA, Sabin Barruetabeña
- 23.—ARPEKO MARI, Eusebio Erkiaga
- 24.—SAN MARTINTXO, Juan Manuel Etxebarria